

## 2 FITXA: AHOLKUAK Zer egin dezaket nik? Zer egin dezakezu zuk?

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera Mota
DENOK INDARKERIA SEXISTAREN AURKA: <b>Neska-mutilok, zer egin dezakegu erasoaren aurrean?</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>Identifikatzea</b> zer egin dezaketen neskek eta mutilek erasoaren aurrean.</li> <li><b>Aztertzea</b> zein pausu eman erasoaren aurrean.</li> <li><b>Eztabaidatzea</b> eraso sexistak gaitzesteko erantzunei eta erasoen aurka borrokatzeko erari buruz.</li> </ol>	<p>Gutxienez: 45 minutu.</p> <p>Gehienez: prdu 1 eta 30minutu.</p>	<p>-Talde dinamika "Aholkuak".</p> <p>- Lana sexuen araberrako taldeetan.</p> <p>-Eztabaida talde misto handian.</p>
Norentzat	Landu beharreko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
<p>15-19 urteko neska-mutilentzat.</p> <p>20-25 urteko neska-mutilentzat.</p> <p>Talde bien arteko desberdintasuna: dinamikan erabiltzen diren galderak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Neskaren ezetza beti da <b>EZ!</b></li> <li>- Erasoaren <b>arduraduna</b> egiten duena da beti.</li> <li>- <b>Aringarriak</b> edo kanpoko errudunak bilatzea ez da ona eraso sexistak desagertarazteko. .</li> <li>- <b>Kontrola</b> maitasunez mozorrotu daiteke, baina.... kontrol kiratsa du.</li> <li>- Maite bazaitu, EZ dizu nahita <b>minik</b> emango</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dinamikarako galderen txartelak.</li> <li>Txartelak Fitxa honen edukietan dituzu.</li> <li>- Beldur Barik: Indarkeria sexistaren aurkako neska-mutilentzako Gida.</li> </ul>	

## Nola landu

Taldeari proposatuko diogu "erasoei buruzko Aholku Programa" prestatuko dugula, Denok, sarritan, buruan ibili ditugun galderi erantzuteko. [5 minutu]

- Proposamenaren helburua azalduko dugu: taldeko neska-mutilak aktiboak izatea eta, jaso dituzten galderen bitartez, proposa dezatela aholku edo ideiarene bat eraso prebenitzeko edo gelditzeko. Agian aholku batzuk neskentzat dira, eta ez mutilentzat, edo alderantziz.

Hori dela eta, talde bakoitza nesken ala mutilen aholkularitzan espezializatuko da.

Zenbat mutil eta neska diren arabera, aukera desberdinak izango ditugu taldeak egiteko orduan:

- ➔ Partehartzaileak 20 baino gutxiago badira, bi talde egingo ditugu (bata mutilena eta bestea neskena). Talde bakoitzean, asko jota, hamar lagun egongo dira.
- ➔ Partehartzaileak 20 baino gehiago badira, hiru-lau talde egingo ditugu, talde bakoitzean asko jota 10 lagun.
- ➔ Talde orekatuak egiteko ordezkariak maskulinorik edo femeninorik ez badugu, talde mistoak egin.

Taldeak egin ondoren, lanaren helburuan sakonduko dugu. [5 minutu]

-Saioan erasoetan adituak izango dira. Kontratatu egin dituzte neska-mutilei laguntzeko erasoen aurrean zer egin jakin dezaten. Baliabideak egoki erabiltzearen, nesken taldeak mutilen galderi erantzungo die eta alderantziz.

- Talde bakoitzak txartelak jasoko ditu, bere adineko neska-mutilen zalantzekin edo galderekin.

- Talde bakoitzak eztabaidatu egin beharko ditu erantzunak eta paperean idatzi. Adituen taldeak erabakiko du, adostasunik badago, zein aholku edo aholkuk eman neskari edo mutilari. Adostasunik ez balego, erantzuteko aukera guztiak batuko dira. Aholkularitza abian jarri aurretik, seguru egongo gara taldekoek ondo ulertu dutela euren betebeharra. Horretarako, zalantzak argituko ditugu.

- Denboraren arabera, gutxienez 4 txartel banatuko zaizkio talde bakoitzari, eta gehienez 6.

Kasu bakoitzerako taldeak 5 minutu ditu (txartel gutxiago erabiltzea erabakitzen bada, asti gehiago izango da) ; kasua irakurri eta erantzuteko aukerak baloratu beharko dituzte taldean. Partaide batek erantzuna edo erantzunak txartelean idatziko ditu [\[30 minutu\]](#)

- Erantzunak aholkuak, ideak edo mezuak izan daitezke, eta honela hasiko dira: **Erasoetan adituen taldeak zure kasua aztertu du eta uste dugu egin dezakezuna hauxe dela...**

- Talde lana amaitu ondoren, partaide bakoitzak talde handian aurkeztuko ditu bere kasuak, eta erantzunen egokitasunari buruz eztabaidatuko dute. Eztabaidan, garrantzitsua da neska-mutilak animatzea erasoen aurkako mezu argiak egitera, eta erasoen ondorioak neurtzen laguntzeak mezuak lantzeko ahalmena gehitzea ekar dezake. Eztabaida errazteko, neska-mutilei *indarkeria sexistaren aurkako neska-mutilentzako Gida* banatuko diegu, bertan izango baitituzte neska-mutilentzako aholkurik garrantzitsuenak.

#### Aldaerak

- Taldeak egiteko partaiderik ez balego, aholkularitzako galderak banatu bakarka edo binaka erantzuteko.
- 15-19 urteko neska-mutilekin lantzeko aproposak diren bestelako galderak [www.geubiok.com](http://www.geubiok.com) orrialdean dituzu, FAQ atalean. Aldaera horrek erantzunak eta gaian sakontzeko lagungarri diren materialak erraztuko dizkizu.

- Interneten nabigatuz gero, gaiari buruzko foro ugari aurkituko ditugu. Guk webgune bat proposatuko dizugu, esperientzia pertsonalez betetakoa, 20-25 urteko neska-mutilen artean eztabaidatzeko.

[http://foro.enfemenino.com/forum/psycho1/f10638\\_psycho1-Sois-mujeres-maltratadas.html#142698](http://foro.enfemenino.com/forum/psycho1/f10638_psycho1-Sois-mujeres-maltratadas.html#142698)

Kasu horretan, galderak eztabaidatzeaz gain, erantzunak ere eztabaida ditzakezu, edo baita kontsultek sortzen dituzten eztabaidak ere.